

Mungiako Tokiko Agenda 2030 eta Eskolako 2030 Agenda programen arteko koordinazioa, 2021-2022 ikasturtearen justifikatzeko txostena.

11 HIRI ETA KOMUNITATE
JASANGARRIAK



2022-2023 IKASTURTERAKO INGURUMEN HEZUNTZAKO EKINTZEN PROGRAMA

Mungiako Udala. 2030 Eskola Agenda

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA



DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

AURKIBIDEA

1) 1 SARRERA	3
2.2 KOORDINAZIOA.....	4
2) 2 ESKAINITAKO PROGRAMAZIOA.....	5
2.1 Ekintzen sailkapena.	6
2.2 EKINTZEN DESKRIBAPENA (2030 TOKIKO UDAL ETA ESKOLA AGENDEN ARTEKO KOORDINAZIOA SUSTATZEN DUTEN JARDUERAK)	8
2.2.1. EA 2030KO SINADURA- EDO ONGIETORRI-EKITALDIAK.....	8
2.2.2. JARDUNBIDE EGOKIAK. OINARRIZKO EKINTZAK.....	9
2.2.3. AZTERGAIARI BURUZKO EKINTZAK.....	19
1. FAMILIENTZAKO ETA IKASLEENTZAKO JARDUNALDI TEKNIKOAK ANTOLATZEA.....	24

1| SARRERA

Urte asko dira **Mungiako Udalak** gure herriko herritarren eta ikasleen artean jasangarritasunaren eta ingurumenaren zaintzaren balioak sustatzearen aldeko apustua egin zuenetik Agenda 21 bitartez.

Udalaren ustez, Eskolako Agenda 2030aren oinarriei begira, ikastetxeek udalerrian aktiboki parte hartzea oso garrantzitsua da. Izan ere, Mungiako komunitateko partaide garrantzitsuak dira, are gehiago kontuan izanik Mungiako Ekintza Planaren 8. Ildo estrategikoaren barruan **iraunkortasunaren erronkan hezkuntza funtsezko elementua** dela.

Gaur egun, **Mungiako Tokiko Ekintza Planaren** barruan "Iraunkortasunerako heztea eta parte hartzea" 8. ildo estrategikoa barneratzen du. Bertan, hezkuntzaren arloko etorkizuneko honako erronka hauek daude:

- Udal mailako hausnarketa bat planteatzea, Mungiako iraunkortasuna helburu izanda, hezkuntzan hobekuntzak, berrikuntzak eta proposamen berriak sartzeko.
- Mungian jasangarritasunerako sarea osatzea ingurumen-sentsibilizazioa eta -hezkuntza bultzatzen duten eragile laguntzaileekin.
- Herritarren parte-hartzeak duen zereginari buruz hausnartzea: orain arte egindako lana baloratzea eta proposamen eta orientazio berriak sartzea.

Horregatik, urtero, Mungiako Udalak, **Udalsarearen** eta **Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren** laguntzarekin, "Mungiako Tokiko Agenda 21 eta Eskolako 2030 Agenda proiektuaren arteko koordinazioa" proiektua sustatzen du iraunkortasunerako hezkuntza programa indartzeko helburuz, **ekintza programa** oparo bat herriko ikastetxeei eskainiz.

Mungiako ikastetxe guztiek, Lehen Hezkuntzatik Batxilergora, hezkuntza eko-sozialeko tailerren eta jardueren udal-programan parte har dezakete. Bere helburua irakasleei eta eskola-curriculumeko edukiei laguntzea da, kontuan hartutako edukiak ezagutuz eta esperimendatuz, garapen jasangarriaren helburuak curriculum-espazioetan integratzea erraztu dadin.

Ikasturte honetan, Mungiako ikastetxeetan landuko den gaia **Hiri eta komunitate jasangarriak**, **GIH-en 11.a**, izango da, iraunkortasunaren erronkak eskatzen duen ikuspegi integrala ez galtzen saiatuz.

Horrela, ikasturte honetan gai hori landuko da sentsibilizazio-jardueren bidez, ondoren eskola-diagnostikoa egiteko eta, azkenik, ekintza-plan bat egiteko.

Azkenik, ikasturte amaieran egingo den Udal Foroan, Diagnostikoen emaitzak aurkeztuko dira, konpromisoak hartzeko eta ikastetxeen proposamenak udalari helarazteko balioko digutenak.

2.2| KOORDINAZIOA.

Ikasturtearen zehar, koordinazio-bilerak ikastetxeen, Ingurugelaren eta Mungiako Udalaren artean eongo dira.

Laguntza teknikoa:

posta elektronikoaren (**eskolagenda21@mungia.eus**) eta telefono mugikorraren bidez (**695 783 656**) mantenduko da uneoro.

Diego Mendoza, Mungiako 2030 Tokiko Agendako teknikaria.

2030 Eskolako Agendak, iraunkortasunaren erronka oinarri izanik, zeharkakotasuna eta koordinazioa eskatzen ditu edozein aurrerapauso emateko garaian.

Horretarako, eta CEIDAREN lan plangintzari jarraikiz, batz bestea hileroko koordinazio batzarrak burutuko ditugu. Eskola Agendan sartuta ez dauden ikastetxeekin harremanetan egongo gara eta, behar izan ezker, gai baten inguruan berba egiteko bilerak egin ahalko dira.

2| ESKAINITAKO PROGRAMAZIOA

Txosten honetan ondoko informazioa daukazu:

1. Ekintzen sailkapena.
2. Ekintzen deskribapen laburrak.

Ikastetxeei eskaintzen zaizkien jarduerak helburu hauek dituzte:

- ❖ **Ingurumen-batzordea (Eko-ordezkaririk):** ikastetxe bakoitzeko ingurumen-batzordea osatzen duten ikasleentzat berriaz diseinatutako jarduerak, ikastetxe guztiekin batera egiten direnak (Erreka eguna) edo hainbat jardunalditan antolatuta egiten direnak (Herri Diagnostikoa).
- ❖ **Haur eta Lehen Hezkuntza:** adin desberdinetarako egiten diren jarduerak 4 eta 5 urteko gelatik (ikastetxe batzuetan), baina, batez ere, lehen hezkuntzako 1. mailatik 6.era (horietako batzuk ikastetxe guztiekin batera, Oinez busan bezala).
- ❖ **Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa:** DBHko 1. mailatik Batxilergoko 1. mailara arteko jarduerak.

2.1| EKINTZEN SAILKAPENA.

Hainbat ekintza programatu eta gauzatuko dira, hiru ataletan banatuta:

- Jardunbide egokiak. Oinarrizko ekintzak
- Aztergaiari buruzko ekintzak
- Beste ekintzak. Egun seinalatuen inguruko eskola-topaketak eta familientzako jardunaldiak

a) JARDUNBIDE EGOKIAK. OINARRIZKO EKINTZAK:

	EKINTZA	IKAS-MAILA*	PROPOSATURIKO DATA**
1.	Oiñez busa	BE, LA, LI, LE-- 5 urtetik LH6ra	Irailak 22
2.	Ortu ekologikoa	BE, LA, LI--HH eta LH IES---talde irekia	Urria-azaroan eta apirilean
3.	Gosari osasuntsua	LH1	OTSAILA - MARTXOA (LI, LE, BE eta LA)
4.	Deforestazioaren ondorioei buruzko tailerra.	LH4 (LI, LA, BE) eta LH3 (LE)	URTARRILAREN bukaeratik aurrera
5.	Paper tailerra.	LH4 (LI, LA, BE) eta LH3 (LE)	Deforestazio tailerren ostean
6.	Beira tailerra	LH3 (LI, LA, BE) eta LH4 (LE)	URTARRILA (hil bukaeran)
7.	Hondakinen kontzientziaioari buruzko tailerrak	gaineko HH. 4-5, LHko 1go zikloa (HH4, HH5, LH1)	Zehazteke (zuen interesen arabera edota Europako Hondakinen Prebentziorako Astearekin bat egiñez-azaroaren 19tik 27ra biartean)
8.	“STOP PLASTIKOAK” Hitzaldiak	BHI Mungia (DBH. 2)	zehazteke
9.	Uraren Kontsumo Arduratsuari Buruzko Tailerra	HH. 5 (LA, LI, BE, LE)	Martxoan
10.	Aztertu programaren txotxongilo ikuskizuna	HH 4 (LA, LI, BE, LE)	zehazteke
11.	Erreka eguna	BE, LA, LI, LE, -LH6	Ibaialde programarekin (Martxoan zehar, Nazioarteko ibaien eguna).
12.	Bidezko merkataritza: Moda jasangarria tailerra + erakusketa	DBH 1-3	Apirila-maiatza
13.	Harrapariei buruzko tailerra	DBH1	Azaroa-abendua

Mungiako Tokiko Agenda 2030 eta Eskolako 2030 Agenda programen arteko koordinazioa, 2021-2022 ikasturtearen justifikatzeko txostena.

14.	2030 Agendako tailerra	BE---DBH4 IES, LI---BTX1	Otsaila-Martxo
-----	-------------------------------	-----------------------------	----------------

Oharra: Oinarrizko tailer hauek ikastetxeen beharretara egokitu ahalko dira eta ikastetxeen nahia edo interesen arabera beste ekintzaren bat ere planteatzeko aukera egongo da, urte batzuetan, esatebaterako, Uraren kontsumoaren inguruko tailerrak eskatu izan dira.

b) Aztergaiari buruzko ekintzak:

	EKINTZA	IKAS-MAILA*	PROPOSATURIKO DATA**
15.	Jardunaldi tekniko	BE, LI, IES---DBH4	Otsaila-martxo
16.	Herri diagnostikoa	Aukerak: - Maila bat aukeratu - Ingurugiroko batzordea	Urtarrila
17.	Biodibertsitatea ezagutzeko irteerak.	LH5 / DBH2	URRIA (LI), MAIATZA (BE, LA eta BHI)
18.	EDAR/ETAP ezagutzeko bisitak	DBH3	MAIATZA
19.	GARBIGUNEA EZAGUTZEKO BISITA	LH2	. MARTXOA (LI), MAIATZA (BE eta LA)

*BE: Bentades Ikastetxea, LA: Laukariz Eskola, LI: Larramendi Ikastola, IES: IES-Mungia-BHI

** 2. Ebaluaketaren datak dakizkigunean moldatuko ditugu hobeto datak.

c) **Beste ekintzak. Egun seinalatuen inguruko eskola-topaketak eta familientzako jardunaldiak.**

	EKINTZA	IKASMAILA*	PROPOSATURIKO DATA**
20.	Txoriei eraztunak jartzeko tailerra	- Ingurugiroko batzordea	Otsailean (hileko lehenengo domeka)
21.	Interforoa / Udalforoa	Ingurugiroko batzordea	Maiatza

22.	Zuhaitza eta biok	HH5	Abenduan (domeka batean)
-----	-------------------	-----	--------------------------

2.2] EKINTZEN DESKRIBAPENA (2030 TOKIKO UDAL ETA ESKOLA AGENDEN ARTEKO KOORDINAZIOA SUSTATZEN DUTEN JARDUERAK)

2.2.1. EA 2030KO SINADURA- EDO ONGIETORRI-EKITALDIAK

1. OIÑEZ BUSA

Irailaren 22an

Hartzaileak: HH5 + LH osoa

Ikasturte hasieran egiteko ekintza da (irailaren 22an). Haur Hezkuntzako 5 urtekoak eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek parte hartuko dutela kontuan izanik, Udaletxeko agintari politikoek hitzalditxo bat botako dute eta bertan mugikortasuna, elikadura eta osasunari buruzko aipamenak egiteaz gain, ongietorria emango diote ikasturte berriari.

Ekintza honetara 2030 EAn parte hartzen duten ikastetxeez aparte Legarda eta Laukariz ikastetxeak ere gonbidatuta egongo dira.

Ekintza hau oso berezia da hainbat arrazoirengatik:

- ❖ 2030 EA2ko proiektuaren barruan dauden ikasleei ongietorria ematen zaielako.
- ❖ Mungiako ikastetxe guztiek batera parte hartzen dutenez, elkarlana sustatzen delako.
- ❖ Herritik mugitzeko orduan, dauzkagun aukera osasuntsu eta jasangarriei buruz ikasleek kontzientzia hartzeko ekintza baliagarria delako. Txikitatik motorrik gabeko garraioak edota garraio publikoak erabiltzearen garrantzia azaltzeko aukera aparta delako. Orain umeak direnak Mungiaren etorkizuna dira-eta.
- ❖ Elikadura osasuntsuaren garrantzia sustatzeko balio duelako. Horretarako hamaiketako osasuntsua banatuko da.

Mungiako Tokiko Agenda 2030 eta Eskolako 2030 Agenda programen arteko koordinazioa, 2021-2022 ikasturtearen justifikatzeko txostena.



2.2.2. JARDUNBIDE EGOKIAK. OINARRIZKO EKINTZAK.

2. ORTU EKOLOGIKOA ETA LORATEGI BERTIKALA

Hartzaileak: **HH eta LH eta IES-Mungia (talde irekia)**

Ortu ekologikoa, eskola bakoitzaren beharren arabera, modu desberdinetan gauzatzen da: ortuak, bankalak, lorategi bertikalak,....



2030 EAeko ekintza garrantzitsuenetariko bat ortu ekologikoa da. Eskola bakoitzaren antolamendua desberdina izaten da, horregatik, ekintza edo planteamendu desberdinak egoten dira.

Ikasleek ortu ekologiko baten landaketan parte hartuko dute, eta horrela, batetik, elikagai fresko eta osasuntsuen iturri dela ikusiko dute, eta bestetik, naturarekin harreman osasuntsua bultzatuko da.

Barazkiak eta fruituak ematen dizkigu ortuak. Horretaz gain, lan kreatiboak egiteko, esperimintatzeko eta gauza berriak ezagutzeko aukera ematen digu, baita ariketa fisikoa egiteko eta janari osasuntsuak hartzeko ere; gure lagun eta etxekoei opariak egiteko; aire freskoa arnasteko eta bizitzaz gozatzeko.

Baratzarekin erlazioan, hamaika hezkuntza-jarduera desberdin egin daitezke: Laboreen jarraipen eta behaketatik, ohizkoak diren ekintzak burutzerara (hauetan landareekin erlazionaturiko alderdi osagarriak landu daitezke: osasuna, elikagaiak, hondakinak, etab.). Mungiko ikastetxeetan bultzatzen den ortua ikastetxearen jarduera osagarri gisa planteatzen da. Interesa duten ikasle guztientzat irekita dagoena eta curriculum- ean txertatu daitekeena.

Gainera, ekintza honen bidez, zeharkako elementu gisa, garapen jasangarri eta ingurumenarekiko errespetuzko jarrera aktiboak sustatzen da, besteak beste.

3. GOSARI OSASUNTSUAREN TAILERRA

Hartzaileak: lehen Hezkuntzako 1. Maila

Helburua ikasleak eguneroko otordu horren garrantziaz pentsaraztea da, elikaduran ohitura osasungarriak lantzeaz gain.

Hala, tailer hau egin ziren egunetan, ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleek ikastetxean “gosari osasuntsu” bat gosaldtu zuten.

4. DEFORESTAZIOAREN ONDORIOEI BURUZKO TAILERRA eta PAPER TAILERRA

LH 4

➤ DEFORESTAZIOAREN TAILERRA

LH4 (edo LH3)

Zer da deforestazioa, basoen onurak (Karbono Dioxido xurgaketa, biodibertsitatea, kultura askorentzak bizimodua...) eta deforeztazioak dituen kalteak azaltzen dira. Munduko egoera globala ulertu dezaten lau baso primario garrantzitsuenen egoera hausnartzen da (Amazonia, Boreal Basoa, Kongo erroa, Indonesia). Eta honen bitartez, paperaren inguruan dauden zigiluak, jaki batzuen zerikusia deforestazioarekin (azukrea, abeltzaintza industrial, palma olio...) gurekin zer ikusirik dituzten ekintza konkretuak aztertzen ditugu: kontsumitzen ditugun jakiak, komunerako paperaren erabilera, eskoletako paperaren erabilera...

Tailerrak azalpenak, eta rol jolas batez osatua dago. Alde errealista eta dramatiko, antzerkia eta umorearekin konbinatu egiten dira. Lurbira alde batetik eta denetariko mozorroak bestetik tailer interesgarri eta dibertigarri bat osatzen dute.

- Laukarizen kasuan, eguraldi ona izango dugun egun batean egingo da eta eskola ondoan dagoen basora oinez egindako paseotxo bat egingo dugu, bertan tailerra egiteko ingurumen ezin hobea baita. Aldez aurretik kokatutako haritz enborretan eserita eta zuhaitz ezberdinen artean egindako eszenatoki inprobisatu batean egingo dugu rol jolasa. Hara heldu arteko ibilbidetxoan bai bertoko zuhaitz originalak, haritzak adibidez (Laukariz, "Lau haritz" izena ziurrenik datorren lekutik), bai landatu diren bertoko batzuk, pagoak adibidez eta bai kanpotik ekarri eta landatutako inbaditzaile zuhaitzak, pinuak, eukaliptoak, saziakaziak edo sazilaurelak ikusteko eta ezagutzeko aukera izango dugu. Espezie guzti hauen onurak eta ezaugarri aurkakoak ikusiko ditugu eta ikusmira basoko biodibertsitatean jarriko dugu, landareak eta bertan dauden animalia txikien azterketa.
- Beste eskoletan, non ez dagoen basora joateko aukerarik klasean bertan egingo ditugu azalpenak eta rol jolasa. Azalpena deforestazioaren kalteak azaltzen duten

bideo batzuekin lagunduta egongo da. Bertan Indonesiako kasua azalduko da non orangutanek haien basobizitza galdu duten. Baita etengabeko baso primarioetako galketak azalduko dira ere, bertako zuhaitz-enborretatik lortutako paperak ingurumenean egiten duen kalteak azalduko dira.

➤ PAPER TAILERRA

LH4 (edo LH3)

Jarduera hau Deforestazio tailerrarekin lotura dauka eta biak batera eskaintzen dira. Tailer honetan paperaren jatorria azaltzen da, papera birziklatzearen garrantziaz jabetu daitezen, bi aldetatik erabil dezaten...

Izan ere, papera arduraz kontsumitzeak onura handiak ekartzen dizkio ingurumenari. Hortaz, jarduera honen helburu nagusiak:

- Gaikako bilketak eta paperaren birziklapenak ekarritako onuren aitortpena.
- Paperaren kontsumo eta kudeaketa arduratsuan inplikatzeari, ingurumen praktika gisa ikastetxean.

Tailer honek 2 orduko iraupena zeukan eta bi atala ditu: Lehendabizi, gaiari hurbiltzeko aurkezpena: "Gure papera" power point-a erabiliz, eta, ostean, papera modu artisauan birziklatzen ikasteko saio praktikoa.

5. BEIRA TAILERRA

LH3

Ekintza hau, **Ecovidrioren** kolaborazioarekin egiten da eta Artelatz enpresak eramaten du aurrera.

Tailer honen bidez ondorengo helburuak lortu nahi dira:

- ❖ Birziklatzeko ohiturak ume-umetatik hasita bultzatzea, beira gaika biltzeko orduan guztion parte-hartzeak duen garrantzia azalduta.
- ❖ Zalantzak argitzea, batez ere, beira batzeko erabiltzen den edukiontzi berdearen ingurukoak.

Saio bakoitzaren iraupena 55-60 minutukoa izango da.



6. HONDAKINEN GAINEKO KONTZIENTZIAZIOARI BURUZKO TAILERRAK

4 eta 5 urteko Haur Hezkuntzako ikasleak eta LH 1.

Azken urteotan, Mungiako Udalak hainbat kanpaina egin ditu gaikako bilketa sustatzeko. Edukiak eta baliabide didaktikoak egokitzen joan dira, LH 1 eta 4 eta 5 urteko geletan tailer erakargarriagoak egin ahal izateko.

Zaborra arazo handia da bizi garen neurrigabeko kontsumo gizarte honetan. Tailer honetan, ikasleek normalean sortzen ditugun hondakinak nola banatu, murriztu, berrerabili eta birziklatu ikasten dute. Mungian erabiltzen diren hondakin-edukiontzien erabilera egokia ikasten dute: horia, berdea, grisa, urdina eta marroia.

Horrela, proposamen horren barruan bi tailer eskaini ziren:

- ❖ **Birzikl-Aitor eta Zakarrontxo eskolara datoz.** Haur Hezkuntzako 4 urteko haurrentzat.
- ❖ **Birzikl-Aitor eta Zakarrontxorekin jolasten.** LH1 eta Haur Hezkuntzako 5 urteko haurrentzat.

Tailerren hezitzaile lanak, Mungiako Udalak, 2030 Eskola Agendako proiektuarentzako esleituta daukan zerbitzuaren teknikariak egin ditu.



7. “STOP PLASTIKOAK” Hitzaldiak

Hartzaileak: DBH 2 (BHI Mungia)

Era berean, goi-mailako zikloetako ikasleentzat, plastikoen arazoei buruzko hitzaldi bat antolatzeko eskaera jaso dugu Mungia BHI-tik beste tailer hau egitea proposatzen da, aukeran:

“Stop plastikoak” izenpeko hitzaldia eskainiko da aditu baten eskutik: “Plastikoa zergatik da arazoa eta nola gutxitu ahal dugu bere kontsumoa”.

8. ERREKA EGUNA.

Parte-hartzaileak: LH. 6

Ikastetxe bakoitzarekin, martxo aldera, Ibaien Nazioarteko egunarekin bat egiñez, egun desberdinetan gauzatuko da.

Ikasleek gure erreka eta bere ingurua ezagutu dezaten eta garbi jagotearen garrantziaz kontura daitezzen antolatuko dira tailer eta ekintza hauek.

- ❖ Butroi ibaiari buruzko hitzaldia
- ❖ Ibaialdeko Erakusketa (lortu ezker).
- ❖ Alebinak erreka bota (BFAldunditik lortu ezker).
- ❖ Ibaiertzak garbitu.
- ❖ Ur-analisiak egin Butroerrekaren uraren kalitatea ezagutzeko.
- ❖ Butroi ibaiaren erronka, pista-arrasto jolas bat

Mungiako Tokiko Agenda 2030 eta Eskolako 2030 Agenda programen arteko koordinazioa, 2021-2022 ikasturtearen justifikatzeko txostena.

Torrebillera parkean egingo da eta 3 orduko saioa izatea aurreikusi da.

ERREKA EGUNA 2022

Martxoak 14,15 eta 21

Butroe ibaiaren Hitzaldia + erakusketa

Butroi ibaiaren uraren analisia


Ibai-lagun erronka.

udalsarea 2030
MUNGIA UDALA
Eko-hiriaren 2030 Agenda

9. URAREN KONTSUMO ARDURATSUA TAILERRA

HH 5

Tailer honen bidez, uraren gaia eta kontsumo arduratsua hurbildu nahi diegu ikasle txikienei, ume-umetatik hasita ur kontsumoa gutxitzeko ohiturak bultzatuz.



10. HAURENTZAKO TXOTXONGILO ANTZERKIA

Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako lehen zikloko ikasleei zuzenduta dago. Aztertu proiektuaren barruan, ibaien zaintzari buruzko txotxongilo-antzerki bat eskatzeko aukera eskaintzen dute: "Erreka Mari" (Ibailde programa) edo "Itsasmiñez" (Azterkosta programa).

Ikuskizun horiek haurrak kontzientziazteko oso interesgarriak dira.

11. BIDEZKO MERKATARITZA

Hartzaileak: DBH 1-3

Apirila-Maiatza

Iraupena: 2,5 ordu/gela

Bigarren hezkuntzako ikasleak dituzten hiru ikastetxeekin bidezko merkataritzari et jasangarritasunari buruzko jarduerak proposatzen dira.

Jarduera honen helburua ikasleek egungo kontsumoari buruz hausnartu ahal izatea da.. Horretarako, gaiarekin zerikusia duten jarduera batzuk planteatuko zaizkie.

2019. urtean Mungiako Udalak "BIDEZKO MERKATARITZAREN ALDEKO HIRIA" izendatzeko pausoa eman zuen. Bidezko merkataritza eta garapenaren gaineko Europar Parlamentuaren Ebazpena [2005/2245(INi)] jasoaz, bertan, bidezko merkataritzak garapen iraunkorrari emandako kontribuzioa onartzen du "pobreziaren murrizketarako eta garapen iraunkorrerako tresna garrantzitsua" den heinean. Testuinguru honetan, aurtan, Bidezko Merkataritzaren tailerrak egiteko proposamenarekin jarraitzea proposatuko zaie. Horrela, bidezko merkataritza eta kontsumo kontziente eta arduratsuaren inguruan "**COSIENDO REDES**" proiektuaren "**modari buruzko tailerra**" egitea proposatuz, modak ingurumenean, ekonomian eta gizartean daukan eragina aztertuko dute.

Hortaz, tailer hauek hiri hondakinen sortze-prebentzioarekin, kontsumo arduratsuekin eta pobreziarekin estuki lotuta daude.

Mungiako Tokiko Agenda 2030 eta Eskolako 2030 Agenda programen arteko koordinazioa, 2021-2022 ikasturtearen justifikatzeko txostena.



12. 2030 AGENDA KO TAILERRA

Hartzaileak: DBH 4. maila eta Batxilergoko 1go maila.

- **Aurrekariak:** Mungiako Udalak lantzen ari den Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) berriaren barruan hainbat arlo edo gai estrategiko barneratzen ditu: mugikortasuna eta azpiegiturak, espazio publikoak eta ekipamenduak, paisaia eta landa eremuak, etxebizitza eta, azkenik, hirigintzaren garapena.

Pasa den ikasturtean, aipatutako **HAPO**-aren gai horiek 2030 Eskola Agendan lantzen ari zen gaiarekin (11. GIHa) bat zetoenez, 2030 Agendako tailerra eta Jardunaldi Teknikoaren ekintzetaz baliatuz, ikastetxeak udalaren **HAPO-aren partaidetza prozesuan** parte-hartzea proposatu zitzaien.

Azken batean, tailer horien bidez, ikasleak 2030 Agendaren esparruan tokiko jasangarritasuneko jardueretan parte hartzeko prozesu aitzindari bat bultzatu nahi izan zen etorkizuneko Mungiak planteatzen dizkigun eta HAPOn jaso nahi diren erronkak aztertzeko. Horrela, plangintza horren ondorioz, ikasleek aukera izan dute gainerako herritarrekin batera iraunkortasun-jardueretan parte hartzeko. Hau da, hain zuzen, 2030 AgendaK bere 11.GIHan proposatzen duena.

11 HIRI ETA KOMUNITATE
JASANGARRIAK



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



Hori dela eta, ikasturte honetan, berriro, tailer hauen bidez partaidetza prozesu aitzandari horrekin jarraitzeko asmoa dagola jakinarazi nahi dizuegu, ikasleen ekarpenak eta proposamenak plan horretan txertatzeko.

Horrela, saio horietan hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen iraunkorreko 11. Helburua zer den (“Hiri eta komunitate jasangarriak”).
- Garapen iraunkorreko “Hiri eta komunitate jasangarriak” helburuaren eta Mungiako HAPO-aren arteko lotura, eta Tokiko iraunkortasunaren Planaren helburuekin duen lotura.
- Hirigintza inklusiboa.
- Mungia lagunkoia.
- Kudeaketa parte-hartzailea.
- Herrien eta hirien jasagarritasuna.

13. HARRAPARIEI BURUZKO TAILERRA

Hartzaileak: DBH. 1 eta 2 eta LH5 (Laukariz)

Iraupena: 55 minutu

Tailer honetan natura eta animaliak errespetatzen irakasten zaie ikasleei.

Alde teorikoan harraparien ohiturak, bizimodua, zelan elikatzen diren eta abar azaltzen zaie. Gainera kate trofikoan daukaten funtzioa eta garrantzia aztertzen da.

Praktikan, hegazti harrapari mota batzuk erakusten dira, eta ikasleek oso gertutik behatzeko eta deitzeko aukera dute.

Jarduera hau, aire librean egiten da, ikastetxean bertan, jolastokian, eta ikasleek harrapari desberdinak ikusteko aukera izaten dute, hain zuzen ere, harrapari gautarrak eta eguneko hegazti harrapariak.

Oso bizipen polita eta hezigarria izaten da.

Mungiako Tokiko Agenda 2030 eta Eskolako 2030 Agenda programen arteko koordinazioa, 2021-2022 ikasturtearen justifikatzeko txostena.



2.2.3. AZTERGAIARI BURUZKO EKINTZAK

Duela urte batzuetatik hona hainbat irteera egiten ari dira ikasleei gure inguruko baliabideei beste ikuspegi bat emateko. Esate baterako, gure herriko biodibertsitatea ezagutzeko ingurumen-irteerak; garbigunera irteerak, bertara eramaten diren hondakinekin egiten dena pixka bat gehiago ezagutzeko; Mungiako HUAra irteerak, estoldetatik doan urarekin zer gertatzen den jakiteko.

14. JARDUNALDI TEKNIKOA

DBH. 4

Iraupena: 2 ordu

Urtean zehar, ikastetxe guztiek gai jakin bat lantzen dute. Aukeratutako gaiarekin, diagnostiko bat egiten dute, ekintza-plan bat diseinatzen dute eta EAko jardueren barruan hainbat tailer egiten dituzte. Jarduera honen kasuan, gaian aditua den pertsona baten eskutik landutakoari buruzko ikuspegi bat eman nahi zaie.

Aurten, Garapen Iraunkorraren 11. helburuaren ikuspegi integral horri jarraituz, iaz bezala jardunaldi teknikoaren hitzaldia Mungiako HAPO-aren eta ingurumen-diagnostikoaren ildo estrategikoren baten inguruan egitea proposatuko zaizue.

Tailer horien bidez, azken batean, ikasleek 2030 Agendaren esparruan tokiko jasangarritasuneko jardueretan parte hartzeko prozesu aitzindari bat bultzatu nahi izan da, etorkizuneko Mungiak planteatzen dizkigun eta HAPOn jaso nahi diren erronken bidez. Horrela, plangintza horren ondorioz, ikasleek aukera izan dute gainerako herritarrekin batera iraunkortasun-jardueretan parte hartzeko.


Kontzeptuak modu erakargarrian lantzeko asmoz, tailer honetan zenbait euskarri erabili ziren: power-point-eko aurkezpen bat eta roll jolasaren dinamikako fitxak.

Bestalde, saioen bigarren zatian (aurkezpenaren ondoren), ikasleek kontzeptuak eta edukiak errazago barnera ditzaten euren proposamen eta ekarpenak egin ahal izateko, bi talde-dinamika proposatu ziren.

Saio guztiek honako galdera hau izango dute gidalerro: Mungian, nola lor dezakegu denontzako bizigarri eta iraunkorrako izango den etorkizuna? Gai bakoitzari buruzko eztabaida eta elkarrizketa aipatutako galdera horretan oinarrituta egin behar ziren, fokua Mungiaren etorkizunean jarrita beti; eta, aldi berean, genero-ikuspegia eta dauden beharrezan guztiak kontuan hartuta, ingurumenaren aldetik Mungia herri jasangarri bilakatu nahi ahaztu barik .

Jardunaldi teknikoaren saio hauetan landutako gaiak honako hauek izan ziren:

- Mugikortasuna eta azpiegiturak,
- Hiria antolamendua: espazio publikoa eta ekipamenduak, eta paisaia eta landa eremuak



Jarduera honek bi osagai ditu: alde batetik, teorikoa eta sarrerakoa, eta, bestetik, praktikoa eta parte-hartzailea.

- Zati teoriko-sarrerakoa: Lehenengo saio honetan, Mungiari buruz hitz egingo da, bere ingurumen-errealitateari buruz, eta lantegian honako gai hauek aztertu eta eztabaidatuko dira: uraren kudeaketa, hondakinak, kudeaketa energetikoa, airearen kalitatea eta zarata, udalaren ingurumen-kudeaketa eta ingurumen-hezkuntza eta -sentsibilizaziorako ahalegina.

Helburua da ikasleek, beren ideia eta gogoetekin, Mungiako ingurumena hobetzen laguntzea. Eta, azken finean, herri hobe batean bizitzeko, lan egiteko, paseatzeko eta bizitzeko.

Horrela, tailer honek ikastetxeetan garapen iraunkorraren 11. helburua integratzeko tresna izan nahi du.

- Alderdi praktikoa: tailer parte-hartzaile hutsa da, "GIHen internautak", eta, hainbat joko-dinamikaren bidez ("roll" eta "World café" motakoak, landutako gaien inguruan iraunkortasun-xedeak sortu nahi dira Mungiarentzat eta bertako komunitateentzat, modu parte-hartzailean.

15. HERRI DIAGNOSTIKOA.

Urtero, ikastetxeek egiten duten eskaera bat da Herri Diagnostikoa antolatzea. Eskaera horretan bertan zegoen ekintza ahalik eta lasterren egitea, ikastetxeek denbora nahikoa izan zezaten diagnostikoan jasotako emaitzak aztertu eta euren ondorioak ateratzeko, euren ekintza planaren barruan ekimenak proposatzeko, etab.

Aurtengo helburua, herri mailan "Hiri eta Komunitate jasangarriak", 11. GHI hain zuzen, gaiari buruzko diagnostikoa egitea litzateke: ***Hiriak eta giza kokaguneak inklusibo, seguru, sendo eta iraunkorrak izatea lortzea***".

Horrela, Martxoan, GIH. 11arekin zerikusi zuzena duen arlotan gure herria zein egoeretan aurkitzen zen ezagutzeko asmoz, Herri Diagnostikoari ekin genion, "**MUNGIAKO IRAUNKORTASUNAREN DESAFIOA**" ekintzan parte hartuz, herrian zehar kale ikerketa ezberdinak antolatuz, jasangarritasunaren ikuspuntutik egungo Mungiako egoeraren erradiografia bat izateko helburuagaz.

Jardueraren helburua:

- Herri osasuntsu, bizigarri eta iraunkor baten ezaugarriak ezagutu eta gure inguruko arazoak identifikatu: ura eta ibaia, hondakinak, zarata, airearen kutsadura, trafikoa,...
- Herri diagnostikoa egin ondoren, lortutako datuekin ondorioak atera eta dokumentu bat prestatuko da Udal Foroan proposamenak egiteko.

Udalaren diagnostikoak bi zati ditu:

- 1. Datuak biltzea.**
- 2. Datuen analisia eta ondorioak.**



16. INGURUMEN-IRTEERAK. Biodibertsitate ezagutzeko irteerak

LH. 5 mailako eta DBH. 2. mailako ikasleak

Irteera hauen helburu orokorra inguruan daukagun biodibertsitatea ezagutzea eta errespetatzen ikastea da.

Gidari aditu baten eskutik, Inigo Zuberogoitiarekin (Icarus. S.L.), ikastetxeetako inguruetan barrena ibilaldi bat egiten da. Gidariak, modu dibertigarri eta atseginean, ikasleei inguruan duten ingurunea identifikatzen eta interpretatzen azaltzen die, eta, horrela, ingurunearekin harreman positiboa sustatuz.



17. EDAR eta ETAP ezagutzeko bisitak

DBH. 2 eta 3

Mungiako Tokiko Agenda 2030 eta Eskolako 2030 Agenda programen arteko koordinazioa, 2021-2022 ikasturtearen justifikatzeko txostena.

Ur Partzuergoak kudeatzen dituen instalakuntzetara bisitak egitea eskaitzen zaie ikastetxeei. Bisita horiek doanekoak dira, baina Udalak ikasleen garraiorako zerbitzu bat kontratatzen du.

Bisita hauen helburuak hauek dira:

- Batetik, EDARen funtzionamendua ikustea.
- Eta bestetik, erabilitako urarekin zer gertatzen den ulertzea eta ikastea.

Bisita egiteko aukerak:

1. EDAR Galindo
2. EDAR Mungia:
3. ETAP Cruces



18.GARBIGUNEA EZAGUTZEKO BISITA

LH. 2

Eskualdeko garbigunea Mungian dago eta hain gertu izateak aukera aparta ematen du, batetik, bisita egiteko, eta bestetik, bertan zein motatako hondakinak biltzen diren eta eurokin zer egiten den ezagutzeko.

Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleak garbigunera joaten dira bisitan, ohiko edukiontzietan biltzen dena birziklatzeaz gain, hau da, etxean sortu ohi ditugun hondakinak birziklatzeaz gain, beste hondakin batzuk ere birziklatzen direla ikasteko: linea marroia, lerro zuria, pinturak,...

Artigas Zentrotik (Hondakinei Buruzko Bizkaiko Interpretazio Zentroa) kudeatzen dira bisita hauek.

Tailer hau gelan hondakinen gaia aztertu ondoren egiteko aproposa da. Ekintzaren helburuak ondorengoak izango dira:

- ❖ Garbigunea zer den ikustea.
- ❖ Garbigunean onartzen diren hondakinak zeintzuk diren jakitea.
- ❖ Hondakinak Garbigunetik nora doazen eta mota bakoitzarekin zer egiten den jakitea.
- ❖ Birziklapenaren kalitatea hobetzea.

Bisita horrek balio du, halaber, jakiteko zer lortzen den gero hondakinei egiten zaizkien prozesuekin, hala nola pneumatikoekin lortzen dela goma, zabuetan zoru gisa jartzen dena, etab.



1. FAMILIENTZAKO ETA IKASLEENTZAKO JARDUNALDI TEKNIKOAK ANTOLATZEA.

19. TXORIEN ANILAMENDUA. Txoriei eraztunak ipintzeko tailerra

Ingurumen Batzordea (eko-ordezkarriak)

Data: zezeilaren lehenengo domekean

Ekintza hau Ingurugiro Batzordean (eko-ordezkarriak) dauden ikasleei zuzenduta dago. Domekaz egitea aurreikusi denez, eskola guztien arteko elkarlana sustatzeko primerako aukera eskainiko digu.


Txorien migrazioak zelan ikertzen diren azalduko da. Harrapatzen den txori bakoitza lehenengo-lehenengoz identifikatu egingo da eta, gero, bere ezaugarri esanguratsuenak aztertuko dira (pisatu, hegoen luzera neurtu, arra edo emea den begiratu...). Identifikazio prozesu guztia bukatu ostean, txoriari eraztuna jarriko zaio eta, ondoren, askatu egingo da.

Ekintza honek txori bakoitzaren erregistro zehatza edukitzeko aukera ematen du eta bertoko txori desberdinak eta, beraz, Mungiako biodibertsitatea hobeto ezagutzeko aukera.

Mungiako Tokiko Agenda 2030 eta Eskolako 2030 Agenda programen arteko koordinazioa, 2021-2022 ikasturtearen justifikatzeko txostena.

Ikasle kopurua (aforoa): gelaka egingo da eta 10eko taldeetan banatuta, bakoitzak bere begiralearekin.

Sare batzuk jartzen dira, hegaztiak harrapatzeko. Ondoren, hegaztiak eraztundu, identifikatu, pisatu eta hegoak neurtzen dira, eta sexua, adina eta koipe eta muskulu kopurua zehazten dira. Jarduera horri esker, erregistro xehatu bat izan dezakegu ale bakoitzaren banakako informazioarekin, eta, gainera, inguruko hegazti-espezie desberdinen ezagutzara hurbiltzen gaitu, eta, beraz, biodibertsitatearen ezagutzara.



Jarduera berezia eskaintzen zaie beren aisialdian 2030 EAn lan egin duten ikasleei. Jarduera hori Hezeguneen Nazioarteko Egunarekin bat egiñez egiten da, normalean otsailaren lehenengo domekean.

20. UDAL FOROA-ESKOLEN ARTEKO FOROA

2030 Eskolako Agendaren oinarriari begira, ikastetxeak udalerrian aktiboki parte hartu behar dute. Izan ere, Mungiako giza-komunitateko partaide garrantzitsuak dira, are gehiago kontuan izanik iraunkortasunaren erronkan hezkuntza funtsezko elementua dela.

Hori lortzeko bide bat Udal Foroa eta Eskolen arteko Foroa dira. Urtero, maiatzaren erdialdean, batean elkartzten diren bi foro hauek Udala eta ikastetxeen arteko bilgune bihurtu nahi du, Mungiaren mesedetan (esate baterako, aurten `Hiri eta komunitate

jasangarriak´, GIH-en 11. helburuari helduz garapen iraunkorrago baten alde) bi aldeek dituzten proposamenak, eskariak, baliabideak eta indarrak elkarbanatu eta batzeko.

2030 EAko ekintzen artean garrantzitsuenetarikoa Interforoa / Udalforoa da, ikasturtearen amaierako ekitaldia baita.

Interforoan, Udalari egingo zaizkion eskaeren eta ikastetxeek hartuko dituzten konpromisoen lehentasunak finkatuko dira.

Udalforoan, berriz, alkateak eta lurralde arloko zinegotziak parte hartuko dute. Alkateak ongietorria emango die parte-hartzaile guztiei eta ikasturtean zehar ikasleek egindako lana eskertuko du. Beste alde batetik, zinegotziak, aurreko urteko eskaerei erantzungo die eta Mungiako Ekintza Plan “Txikia” emango dio eskola bakoitzari (plangintzaren ebaluaketa eginda).

Eskolek euren aldetik 2030 EA proiektuaren barruan egindako ekintzen laburpena egingo dute.

Ekintza honen helburuetako bat ikastetxe desberdinetako ikasleen arteko harremanak eta 2030 EAeko elkarlana indartzea da.



21. ZUHAITZA ETA BOK.

Mungiako Tokiko Agenda 2030 eta Eskolako 2030 Agenda programen arteko koordinazioa, 2021-2022 ikasturtearen justifikatzeko txostena.

“Nire zuhaitza eta biok” ekimena orain 17 urte martxan jarri genduan. Gure asmoa 2017an jaio eta gaur egun mungian erroldatuta dagozan umeei zuhaitz bana landatzeko aukerea eskaintzea da; eta horregaz batera, umeari landaketa agiri bat emotea. Ekimen horren helburua eurak hazi ahala, zuhaitz hori hazten ikustea eta beragazko loturea sustatzea da.



udalsarea 2030

udalerrri jasangarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles

ESKERRIK ASKO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



MUNGIA
UDALA

udalsarea 2030

udalerrri jasangarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles

